



## SINKOPE BASOBAGALA

### ZER DA SINKOPE BASOBAGALA?

Konortea bat-batean eta une labur batez galtzea da sinkopea. Haurra 2 minuturen ondoren etortzen da bere onera, berez, inolako sintomarik gabe. Haurra zurbil jarri ohi da, eta tonu muskularra galdu, eta lurrera eror daiteke. Kasu batzuetan, sinkopea izaten ari den bitartean, gorputz-adarretan astindu txikiak izaten ditu. Askotan, konortea galdu aurretik, haurra ondoezik jartzen da: goragalea izan ohi du, sabeleko mina, dena lauso ikusten du, izerdi asko botatzen du edo belarrietan burrunba sentitzen du. Komeni da haurrak sintoma horiek ezagutzea, konturatu dadin zer gertatuko zaion eta, hartara, jakingo dezake nola jokatu. Sinkopea honako arrazoi hauengatik gerta daiteke: denbora askoan zutik eta geldirik egoteagatik; etzanda egon ondoren, bat-batean jaikitzeagatik; min, beldur, antsietate edo goragaleagatik... Kontuan izan sinkope baso-bagala EZ DELA GAIXOTASUN BAT, eta, normalean, ez du esan nahi bestelako arazo handirik dagoenik. Horrenbestez, ez dago azterketa gehigarririk egin beharrik, kasu zehatz batzuetan izan ezik.

### ZER EGIN?

- Jakinez gero zorabioak zein egoeratan gertatzen diren, saiatu egoera horiek saihesten.
- Haurra ondoezik jartzen bada edo konortea galdu aurretiko sintomaren batzuk ezagutzen baditu, eseri eta burua hanka artean jarri behar du, edo etzan eta hankak gora jarri, eta arnasa poliki eta sakon hartu behar du. Horrela, ez da eroriko.
- Haurrak konortea galtzen badu, jar iezazkiozu hankak gora eta burua albo batera begira.
- Konortea berreskuratzen duenean eta ondoeza pasatzen zaionean, lagundu poliki-poliki tente jartzen, baina eserita egon dadila pixka batean erabat zutitu baino lehen.

**KONORTEA EZ BADU BERRESKURATZEN, 112 EMERGENTZIA ZERBITZUETARA DEITU, ATENTZIOA ETA BALORAZIOA JASOTZEKO.**